



BANDOA

Ospakizun egunak datoz berriz ere gure herrira, kasu honetan Bedaronan. Aurtengoan, Bedaronako Jai Batzordeak ez du inongo ekitaldirik antolatuko bizitzen ari garen egoera berezia dela eta. Hori da zentzuzkoena, egokiena eta herritar guztiontzako onena. Eskertzekoa da Bedaronako Jai Batzordearen erabakia.

Hala ere, egoerak ahalbidetzen duen einean, Eako Udalak bi ekitaldi antolatu ditu jai egunotan:

1. Umeentzako zinema aire librean, uztailaren 30ean frontoian, gaueko 22:00etan.
2. Uztailaren 31an, 13:00etan, bertso saioa.

Eako Udalak gogorarazi nahi du oraindik ere COVID-19a gure artean dagoela eta, ekitaldi txikietan bada ere, zorrotz jokatu behar dugula.

1. Musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da denbora guztian, jateko edo edateko izan ezik.
2. Jende pilaketak ekidin.
3. Ahal denean, segurtasun distantziak mantendu.
4. Eskuak maiz garbitu.

Horrez gain, era pribatuan gertatu daitezkeen bazkari eta festetan ere buruz jokatzeko eta ezarritako neurriak betetzeko deialdia egiten du Eako Udalak eta ezarritako neurriak jarraitzeko.

Ea COVID gabe.

Alkate-Ordea,

Jon Lejardi Plaza

